

Txangoak eskualdean barrena

Buruntzaldeko ibilbideak ekimenaren edizio berria ospatuko da, igande honetan. Eskualdean barrena txangoak egiteko aukera egokia da / 10

TicketBAI: Arreta zerbitzua martxan

Foru Aldundiak arreta zerbitzua eskaintzeko bulegoak zabaldu ditu Donostian eta Tolosan. Sistema berriak salerosketara bideratutako negozio guztiei eragiten die / 16



Virginia Gonzalez, Sastreria Gonzalez merkatalgunearen arduradunari elkarrizketa / 8-9



Axel Jauregi Maroto, Haitiko lurrikara lehen pertsonan bizi izan zuen urnietarrari elkarrizketa / 2-3



Maila handiko dokumentalak ikusgai Urnietan, Zanpatuz taldearen eskutik / 11

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Errealitateak fikzioa gainditzten omen du zenbaitetan. Bada, horrelako egoera baten lekuko izan da orain gutxi Axel Jauregi Maroto urnietarra. Abuztuaren 15ean abiatu zen Haiti aldera, Iker Gastaminza Unanue lagunarekin eta lankidearekin batera. WE Architects enpresaren proiektu bat medio, topografia-lanak egiteko asmoz joan ziren ozeanoaren beste aldera, sei astez.

Alabaina, inork gutxiak aurreikusitako berri desatsegin bat jaso zuten hegazkina hartu baino lehen: 7,2 puntuko lurrikara gertatu berri zen Haitin. Azken datuek diotenez, 2.248 hildako, 329 desagertu eta 12.763 zauritu utzi ditu ezbeharrak. Eta, gutxienez, 136.800 eraikin kaltetu edo suntsitu dira. Gauzak horrela, azken ordukoak eragindako urduritasunaz, eta gogo biziz bezain ezjakintasunez, lur hartu zuen Kariben urnietarrak. Kaosaz, aurrera egin beharraz eta atsekabeaz.

Zerk eraman zintuen Haitira?

Iker Gastaminza lagun eta lankidea eta biok izan gara Haitin. Biak ala biak gara dronen zale amorratuak, eta, orain gutxi, horiekin topografia-lanak nola egin aztertzen hasi ginen. Bere aitak, Patxik, WE Architects enpresan egiten du lan, hemen, Bartzelonan nahiz Haitin. Azken horretan orain hamarkada bat hasi ziren lanean, eta aipatu zigun etorkizunean eraikiko diren eskolen topografikoak egin nahi zituela bertan. Horrela murgildu ginen proiektuan: abuztuaren 15ean abiatu ginen Haitira, sei aste igarotzeko.

Landa-eremua zapaldu duzue, hegoaldea, herrialdeko tokirik txiroena.

Ministerioarentzat nahiz Munduko Bankuarentzat egiten du lan enpresak. Hala, beren erabakiz, eskolen topografia-lana egitera joan ginen Haitira, alegia, lurraren irakurketa egitera, ondoren, eraikitze-lanak egiteko. Iparraldean zein hegoaldean aritu behar ginen lanean; azkenean, sei aste horietan hegoaldean izan gara soilik. Datorren larunbatean, bi asterako itzuliko gara, iparraldeko lanak egiteko.

Izan ere, ezusteko desatsegin batekin egin zenuten topo bidaia hasieran...

"Ezer gutxi zuena esku hutsik dago orain Haitin"

AXEL JAUREGI MAROTO INGENIARIA

Haitin izan da sei astez urnietarra, topografia lanak egiteko helburuarekin. Dena dela, herrialdean gertatutako lurrikarak bidaiaren norabidea aldatu zuen



Axel lan topografikoak egiten. AXEL JAUREGI

Ez geneukan hegaldi zuzena, hots, Santo Domingora (Dominikar Errepublika) joan behar genuen, lehenik. Madrilen hegazkina aireratu baino lehen jakin genuen 7,2 graduko lurrikara izan berri zela Haitin. Giza trajediagatik atsekabea sentitzeaz gain, ezja-

"JENDEAK KALEAN EGITEN ZUEN LO, ETXEA GAINERA ERORTZEKO BELDURREZ"

kintasuna sortu zigun horrek, eta amorru handia, proiektuak denbora luzeko prestaketa eskatzen baitu. Are gehiago, uste nuen iritsi orduko itzulerako hegazkina hartu beharko genuela zuzenean. Ez genekien zein egoeratan aurkituko genuen herrialdea; ez dut sekula lurrikara bat bizi izan, baina banekien albo-kalteak agerikoak izango zirela.

Gogoan al daukazu herrialdean lur hartu zenuen eguna?

Dominikar Errepublikan izan ginen, hasiera batean: gauez iritsi ginen eta biharamunean

hartu genuen Haitira joateko abioneta; hiriburura iritsi ginen Port-au-Princera, hain zuzen. Hortaz, gorputza hasi zen aldatetara ohitzen, nahiz eta bi herrialdeak elkarren ezberdinak izan. Ez dute zerikusirik, hala ere, gure errealitatearekin al-

"KAOTIKOA DA HAITI: BIZIMODU GOGORREKOA, BAINA ERRESILENTZIA HANDIKOA"

deratuz gero, bada bietan aldatetara. Port-au-Princen du enpresak egoitza nagusia; baina, hegoaldera sei bat orduko bidaia dagoenez gero, etxe batean izan gara.

Astetik astera, herrialdeari erreparatzeko modua aldatu al zaizu?

Bai, jakina. Ohitu egiten zara eta bizi dituzun egoerak normalizatu egiten dituzu denborarekin. Hasieran, ez zara egoeraren jakitun: ez non zauden, ez zein den bertako bizimodua. Guztiak harritzen zaitu.

Asko aldatu al zituen zuen planak ezbehar naturalak?

Bai, goitik behera. Haitiko lehen egunean, bilera egin genuen Munduko Bankuarekin zein Ministerioarekin. Lurrikararen albo-kalteen neurketa egiteko proposamena luzatu zien lankidearen aitak, dronekin filmatutako aireko irudien bidez, horrela, lurrikara aurreko egoerarekin alderatzeko. Begi onez hartu zuten eta, beraz, hegoalderantz jo genuen bigarren egunean.

Kaltetutako tokiak zeintzuk ziren jakinarazi zizkigun Munduko Bankuak. Nolanahi ere, bidean suntsiketa handiko gu- neekin topo eginez gero, horiek ere txostenean sartu ditugu.

Lurrikarak sortutako kalteen ebaluazioa egitea egokitu zitzaizuen, beraz. Dron bidez jaso dituzue irudiak. Zein balorazio egiten duzu?

Horixe izan da gure xede nagusia, baina sei aste gauza asko egiteko denbora ematen dute. Ondorioz, balorazioa eginda, bidaiari ekin aurretik geneukan asmoa bete genuen, hain justu ere, etorkizuneko eskolen topografikoak egitea. Lehenbizi, hegoaldeko hiriburuan egin genuen lan, Les Cayesen. Gero, hiritik gertu dauden herri-gune nagusiak aztertu ditugu, epizentrotik gertuen zeudenak Munduko Bankuak bidalitako zerrendaren arabera. Izan ere, ezin duzu herriz herri, etxez etxe joan.

Ondorioen artean honako hau izan zen nabarmenena: dardarekin hormigoiz egindako etxe bat behera etorri gero, paretek duten pisuagatik, hiltzeko arriskua ia saihestezina da; bertan harrapaturik gelditzeko aukera ere agerikoa da. Aldiz, lurrarekin edota egurrarekin egindako etxeen kasuan, txapazko teilatuak dituzte; hortaz, errazagoa da bertatik bizirik irtetzea.



Irlaren hegoaldean izan dira lanean, gehienbat. AXEL JAUREGI



Bizileku gabe utzi ditu makina bat herritar lurrikarak. AXEL JAUREGI

Han ez daukate eraikuntzarako teknikarik, ez dituzte ez arkitektoak, ez ingeniariak. Guztia pixkanaka egiten dute oso modu etxetiarrean, eskura dituzten baliabide materialekin zein ekonomikoekin. Hori horrela izanda, dardara txiki baten etxeak behera erortzen dira.

Suntsipen handia ikusi dugu. Datuen arabera, 3.000 hildakotik gora utzi ditu ezbeharrak. Dena den, hori ez da arazo bakarra: ez dago errolda argirik eta zehatzik. Herritarren erdia ez omen


dago erroldatuta; beraz, oso zaila da heriotza-kopuruaren kontrola ongi eramatea.

Kaleetan beldurra al zen nagusi? Jendeak beldur handia du; etxeak mugimendu txikienarekin ere jausi egiten dira. Gainera, lurrikara baten ostean, beti daude erreplikak. Hala, jendeak kalean egiten zuen lo, izan kanpin-dendetan, izan autoan... Etxea gainera erortzeko beldurrez. Egun osoa kalean igarotzen zuten; etxean soilik beharrezkoa zenean sartzen ziren. Beren etxe zena arrisku-gune bihurtu zen.

Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi orain hamaika urteko lurrikara... Biharamun latza utzi al zuen? Albo-kalteak nabari al dira oraindik ere?

Port-au-Princen izan zen 2010. urteko lurrikara, eta, harrezkerro, adibidez, ez dute Legebiltzarrak berreraiki. Gobernuak ez dauka ezer egiteko dirurik, kanpoko laguntzen bidez egin zioten aurre 2010. urteko dardarari. Jende asko, guztia galduta, hiritik joan behar izan zen, bizileku bila. Lur-eremu bat eskaini zitzaion hiria "txukundu"

Lurrikararen nondik norakoak



2021eko Haitiko lurrikara abuztuaren 14an gertatu zen, eta 7.2 MW.3ko magnitudea izan zuen. Lurrikara horrek 10 kilometroko sakonerako hipozentroa izan zuen Petit-Trou-de-Nippesetik gertu, gutxi gorabehera Port-au-Prince hiriburutik 150 kilometro (93 milia) mendebaldera.

bitartean, bertan bizi zitezen. Bada, gaur gaurkoz, oraindik ere bertan bizitzen jarraitzen dute; beste herrigune bat sortu dute, eta ez dira hirigunera itzuli. Toki hori, gainera, uholde-arrisku handiko gunea da. Oso kaotikoa da; horrela funtzionatzen du guztiak.

Esan al genezake, hortaz, zenbaitetan errealitateak fikzioa gainditzen duela?

Egunero-egunero errepikatzen nion hori bera neure buruari.

Egin ezazu ikusitakoaren erretratua. Harri garria da herrialdea. Ez dago dirurik eta dagoen gutxi hori bata besteari lapurtzen dio. Kaotikoa da Haiti: bizimodu gogorrekoa, baina erresistentzia handikoa. Eutsi, eutsi, eutsi, eta beti aurrera, kexarik gabe. Lurrikara gertatu eta pare bat egunean beren egunerokoa berreskuratzeko ahaleginean hasi ziren herritarrak: "Jan egin behar dugu, eta, horretarako, lan egin beharra dago". Merkatuak irekita, trafikoa, jendea lanera, eskolara.... Eta berriro herria martxan jartzera, tartean, etxe asko goitik behera suntsituta, batek jakin zenbat denbora. Izan ere, dirua duenak soilik eraikiiko du, eta urteak eta urteak behar izaten dituzte bertan etxeak egiteko.

Uharteko zirrikitu guztiak bisitatu dituzue. Nola ikusi dituzue bertako herritarrak?

Ez dute irakaspenik atera orain hamar urteko ezbeharretik, ale-

gia, erantzun bera eman diote lurrikarari: ezer gertatu ez balitz bezala jarraitu dute aurrera. Batzuetan, badirudi onartuta dutela horrela izango dela beren bizia.

Ezer gutxi zuena esku hutsik dago orain. Oso tristea da toki kaltetuena landa-eremua izan delako, eta bertan bizi da diru gutxien duen jendea. Etxea galduta duten familia asko bizi da mendian, ezer gutxiarekin, egunekoarekin; hilabetea, asko jota, 20 dolarrekin egingo dute, ziu-rrenik. Latinoameriketako herrialde txiroena da (dirutan), eta naturak asko zigortu izan du.

Baliabide urriak hamaika arazori aurre egiteko.

Baliabide murrizak ez; ez dago baliabiderik. Hari horri tiraka, WE Architects enpresak Munduko Bankuarekin bildu nahi du berriro: 2016. urteaz geroztik, lurrikarei zein urakanei ongi erantzuten dien eraikuntza mota bat garatu zuen GKE batek. Hala, beste erakunde batzuen laguntzarekin Haitiko zenbait tokitan eraiki zituzten etxe horiek, eta ikusi dugu oso ondo eutsi diotela dardarari. Horrenbestez, aukera ona da.

Zer sentitzen duzu begirada atzera bota eta sei aste horien errepasoa egitean?

Asko ikasi dut. Finean, bizitzaren beste ikuspuntu bat ematen dizu horrelako esperientzia batek.

HISTORIA

Guipuzcoano banketxea

Facebook atari ezagunaren eguneroko erabiltzaile direnentzat aski ezaguna da “Andoain paseando” izeneko orrialdea. Atzoko Andoain eta andoaindarren argazkiak bistaratzen dituen guneak jarraitzaile pilatu ditu urteotan. Gunearen kudeatzailea Ibon Lekuona da, eta 2015eko urrian abiatu zuen gunea. Egunitan albiste izan da Sabadell-Guipuzcoanoren itxiera. Estatu mailan doikuntza handia egin behar duela iragarri zuen banketxeak, irailaren hasieran. Eta neurri gogor



Oso lagun gutxiarekin egin ditu azken urteak, baina lehen langile asko ziren. KM

horiek bete-bete harrapatu dute Andoaingo banketxe historikoa. Duela 65 urte atzera egin behar baita, ordukoa baita Guipuzcoano banketxearen ibilbidea

Andoainen. Eraikin dotorean ezarrita, udalerrian ikono den eraikin bakanetakoa da. Aurreko astean egun osoko bi greba egun egin zituzten, baina Andoaingo



Hainbat bezero ilara egiten, Guipuzcoano banketxearen barrualdean. KM

banketxearenak egin duela esan daiteke. Ostiral honetan hasita, ez da arreta zerbitzurik eskainiko eta kutxazain automatikoa ere baliogabetu egingo dute. Banketxe

bezeroek Lasarte-Oriako edota Hernaniko bulegoetara joan beharko dute aurrerantzean. Argazkiak 1973koak dira, eta "Andoain paseando" orrialdean ikusgai ipini zituzten.

GORA ETA BEHERA



Zabor-bilketa Leitzararen bailararen inguruetan

Joan den igandean, zenbait herritar Leitzarango bailaran zaborra biltzen aritu ziren. Otietako Bisitarien Etxeak antolatuta, Lizarkolako kanalean eta Bertxingo zentralaren ondoan erreka iskinetan bilketa lanetan jardun zuten. Aurtengoz, bigarren eta azken ekimena izan da.



BISITARIEN ETXEA

IN MEMORIAM

Joxe Forcada Arrieta



Joxe Forcada Arrieta urriaren 7an zendu zen, 91 urte zituela. Joxeren emaztea Manoli Orbegoza da, eta bien seme-alabak Arantxa eta Fede. Joxe Andoaingo Kale Nagusian jaio zen, 1930ean. Ama oso gazterik zela hil zen. Aita Errioxatik etorritakoa zen, eta ama Leintz Gatzagakoa. Ahotsak.eus webgunean parte hartu zuen eta bertan Andoaingo gertaera historiko askori buruzko aipamenak egin zituen. Horietako bat Trentxikiari buruzkoa zen. 1987ko ekainaren 10ean egin ziren

Udal hauteskundeetan Eusko Alkartasunako zerrendan aurkeztu zen, bigarren postuan. Xabier Huitzirekin eta Jesus Guerrerorekin batera, EAko ordezkaritza osatu zuten agintaldi hartan. Gipuzkoa mailan PSE eta EA alderdien arteko akordioari esker, Euskadi Ezkerrako Carlos Sanz izendatu zuten alkate. Nahiz eta alderdi bozkatuena Herri Batasuna izan. Joxean Barandiaran izan zen orduko HBko alkategaia.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Truxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnieta).
Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIAN BEGO

Jose Forcada Arrieta



Andoainen hil zen 2021eko urriaren 7an, 91 urte zituela.

Andoaingo Udaleko zinegotzia 1987-1991 legegintzaldian.



ANDOAINGO UDALA

Andoainen, 2021eko urriaren 8an

HISTORIA

Musukoaren erabilera ikastetxeetan: malgutasuna, baita lehen hezkuntzan ere

Ikastolen Federazioa
2021.10.12

Covid 19 koronabirusak eragindako osasun krisiaren ondorioz hartu diren neurriak oso gogorrak izan dira urte eta erdi honetan. Gizarte osoak pairatu ditugu askatasun murrizketak eta neurrien gogortzeak. Noski, osasunak eta elkar zaintzeak lehentasuna zuten egoera batean hartu dira erabakiak, eta, gogorrak izan arren, ezinbestekoak izan dira. Egun, koronabirusaren eraginak behera egin du nabarmen, eta, horri esker, orain arteko neurri gogorrak malgutu ahal izan dira, eta arnasa lasai edo lasaiago hartzen hasi gara. Baina gizarte mailan, orokorrean, hartu diren neurri berriek hezkuntza munduan ez dute isla bera izan, ez bederen Hego Euskal Herrian. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak argitaratu dituzten azken dekretuetan neurri batzuk malgutu dituzten arren, Lehen Hezkuntzako ikasleak jolastokiko garaian ere musukoa erabiltzera

derrigortzen dituen arauari eutsi egin diote, eta horrek kezka handia sortu digu. Pandemiak ingurune hurbilean (familiar, lagun artean) izan duen eragin zuzenak eta ikastetxeetan ezarritako protokolo zorrotzak ikasleengan izan dituzten ondorioak nabarmenak izan dira, alderdi emozionalean bezala akademikoan. Eusko Jaurlaritzak berak egindako ikerketa batek agerian utzi du "Covid efektuak" ikasleen errendimendua baldintzatu duela, eta ez onerako. Izan ere, ikasleen %72 desmotibatuago sentitu da ikasteko, eta hiru ikasleak bik (%65,4) beren maila akademikoa jaitsi egin dela nabaritu dute. Aurrekari horiek aintzat hartuta, Lehen Hezkuntzako haurrei dagokienez orain arteko neurriak bere horretan uzteak ondorio horietan sakontzea ekar dezake. Kezka handia sortu digu bereziki umeen alderdi emozionalari begira, bi arrazoi nagusirengatik: aire librean daudela musukoa erabiltzera derrigortzen

dituzten kolektibo bakarra dira haur hauek; eta, gainera, musukoa erabiltzera derrigortuta dauden aire libreko eremu bakarra da eskolakoa. Hau da, sei eta hamabi urte bitarteko haurrak baztertuak senti litezke, eta, era berean, eskola eremu guztia har dezakete musukoa erabiltzera derrigortuta duten gune bakartzat. Eta ez dute arrazoi faltarik izango. Ez diogu zentzurik ikusten haurrak kanpo espazioan dabiltzanean musukoaren erabilera derrigortzeari, are gutxiago, helduok maskararik erabili beharrik gabeko gero eta gune gehiago irabazten ari garenean. Txertorik jarri ez zaien kolektibo bakarra izateak ez du justifikatzen neurri horri eustea, gainerako guneetan ez badute derrigorrezkoa musukoa erabiltzea. Aitzitik, uste dugu haurraren izate osoa kontuan hartuta –besteak beste bere garapen emozionala (adierazpena), soziala zein ikasteko ibilbidea–, orain arteko neurriei eustek ekin nahi diren kalteak baino



Maskarilla kalean jantzita daraman haurra. UNICEF

albo-kalte gehiago eragin ditzakeela; albo-kalteak, emozionalak zein pedagogikoak /akademikoak, hilabete hauetan egindako azterlanek ohartarazten duten bezala, dagoeneko ikasle askori eragin dietenak. Astelehen honetatik, Ipar Euskal Herrian, Europako herrialde gehienetan bezala, 6-12 urteko haurrak musukorik jarri gabe dabilta ikastetxeetan, jolastokian bezala gelan. Ez dugu uste arduragabekiaz harturiko

erabakia izan denik. Aitzitik, pentsatzen dugu haurren ongizateari erantzuten dion neurria dela. Horregatik, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen diegu gizartearen eta eskolan bertan gainerako kolektiboetara ezarritako irizpide berak erabiltzeko Lehen Hezkuntzako haurren kasuan ere, eta ikastetxeetako aire libreko guneetan musukoa erabiltzeko derrigortasuna bertan behera uzteko.

IA EUROPA OSOAN, 6-12 URTEKO HAURRAK MUSUKORIK JARRI GABE DABILTZA IKASTETXEETAN

EZ DIOGU ZENTZURIK IKUSTEN HAURRAK KANPO ESPAZIOAN MUSUKOA DERRIGORTZEARI

HEMEROTEKA

Antzeko irudia duela sei urte

Hemerotekara erreparatuta, duela sei urte lan beretsua egin zen Espigoian. Udalak 2015eko urriaren hasieran Leitzaran eta Oria ibaiak elkartzen diren gunean garbiketa lanak egin zituen. Ibaien ertzak garbitu eta onbideratzeko lanak egin ondoren, dragatzeari ekin zioten. Udalak orduan adierazi zuenez, “dragatzearen beharra Andoaingo Udalaren eta herritarren aspaldiko eskaera da”. Ur igoeren ondorioz kalteak saihestea premiazkoa baitzen. Dragatze lanak bideratuta, sei urte igaro ondoren, ibaiertzeko sasiak eta zuhaixkak mozteari ekin diote orain.



Garbiketa lanak 2015eko urriaren hasieran. AIURRI



Garbiketa lanak sei urte beranduago, 2021eko urrian. AIURRI

Aurrekontu parte-hartzaileen urrats berria

2022ko aurrekontu parte-hartzailean prozesua azkenaurreko fasera iritsi da. Datorren urriaren 31ra bitarte, hamahiru proposamen ezberdinen artean hiruren aldeko botoa emateko aukera izago dute herrikideek

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako herritarrek parte har dezakete bozketan. Bi modutara egin daiteke. Nahi izanez gero, internet bidez eman daiteke botoa andoain.eus webgunearen bitartez. Bestela, udalerrian zehar jarritako ontzietan sar daitezke proposamenak. Hauetan aurkituko dituzte herritarrek: Udaletxea, Allurralde, Ambrosia Olabide, Bastero Kulturunea, Udaltzaingoa, Urigain, Arrate, Gazte Lokala, Udal Liburutegia edo Ludoteka.

Jarraipen Batzordeak proposamen guztiak baloratu ondoren, hauexek dira urriaren 31ra bitarte bozkatu ahal izango direnak:

- Helduei zuzendutako hondakinei buruzko kontzientziazio-kanpaina abiaraztea.
- Eremu batzuk egokitzeko 1. faseari ekitea Leitzaran ibaian, bainatzeko eremu gisa.
- Gizabanakoaren mugikortasun segururako puntu beltzen mapa bat sortzea: gorabehera pertsonal gehien dituzten eremuak identifikatu, eta segurtasuna areagotuko dezaketen neurriak hartu.
- Organikorako eta errefusarako zaborraren txartela ezabaztea.
- Hiribus zerbitzua hobetzea.



Aurkezpena egin zuten aurreko astean. AIURRI

- Adinekoak eta gazteak sustatuko dituen programa bat sortzea, gazteentzako lan-aukera berria eskainiz.
- Aire zabalean gimnasia egiteko gailu gehiago instalatzea Miranda pasealekuan eta Nafarroa plazan.
- Estali gabeko igerileku batearako proiektuaren lehen faseari ekitea, udalaren kirol-instalazioen baitan egongo litzatekeena.
- Leitzaran-Plazaolako naturbidea ariketa fisikoa egiteko espazio gehiagoz hornitzea.
- Ur-iturriak dituen parke bat sortzea.
- Oinezkoentzat zirkuitu bat diseinatzea, Allurralde kiroldegitik jarraituz. Azterlan faseari ekitea.
- Belabi kalea berrantolatzeke lehen faseari ekitea, aparkaleku gehiago egokitzeko eta espaloia jartzeko.
- Buruntzako lursail batean gizartegune bat eraikitzeke lehen faseari ekitea.

Andoaingo Udalak 133 proposamen jaso ditu guztira.



Maidar Lainez alkatea eta Ana Sanz Gizarte Zerbitzueta arduraduna. AIURRI

Proiektu aitzindaria Gipuzkoan, adineko pertsonen zerbitzura

Bakarrik bizi diren adineko pertsonen bideratuta dago, adimen artifizialak eskaintzen dituen aukerak baliatuta

Erredakzioa ANDOAIN

Aplikazio baten bitartez, bakarrik bizi diren adinekoen egoerari erreparatu nahi diote. Wattio enpresa teknologiko donostiarrek sortutakoa da, aurkezpenean adierazi zuten bezala: "Etxean ezarritako instalazio baten bidez, eta adimen artifizialaren eta beste baliabideen laguntzarekin, bakarrik bizi den adineko pertsona baten errutina detektatzen da, eta APP baten bidez, edozein egoera ez ohikoaren aurrean ohartarazpena igortzen du". Proiektu pilotoa egoera erreale-raman dute Andoainen, zehazki zortzi familia ezberdine-

tara. Euren balorazioa ona dela ziurtatu ostean, Andoaingo gainerako interesatuentzat egokia dela ondorioztatu dute. Izan ere, 65 urtetik gorako ia 600 lagun bizi dira Andoainen. Interesadutenek Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete; 943304343 telefonora deituta. Udalaren esku doa instalazioaren gastu guztia. Lainez alkateak garrantzitsutzat jo zuen adinekoen beren etxeetan laguntzeko baliabide teknologikoak garatzea. "Bakarrik bizi diren adineko pertsonen beren autonomiaz gozatzen jarraitzea da helburua, beldurrik gabe, beren etxeetan".

APLIKAZIO BATEN BITARTEZ ADINEKOEN ERRUTINETAN EZ OHIKO EGOERAK ANTZEMAN DAITEZKE

UDALAK DITUEN DATUEN ARABERA, 65 URTETIK GORAKO IA 600 LAGUN BIZI DIRA ANDOAINEN

"Zeren zain zaude! Etorri eta praktikatu gurekin euskaraz!"

Mintzalaguna egitasmoa martxan da. Gutxieneko baldintza komunikatzeko oinarritzko maila izatea da

Aiurri komunitatea

Mintzalagunak

ANDOAIN

Oraindik izena eman daiteke Mintzalaguna egitasmoan. Doan da eta helburua oso sinplea: lagun taldean elkartzea eta eus-

karaz aritzea. Gutxieneko baldintza da komunikatzeko oinarritzko maila izatea. Ingurunean ez badaukazu norekin egin euskaraz, eta gehiago praktikatut nahi baduzu, hauxe duzu aukera. Andoaingo Mintzalagu-

naren bitartez urteak daramatzagu euskara sustatzen, modu akademikotik at. Helburua da euskara kalera ateratzea, euskarazko espazioak sortzea eta lagun talde berriekin euskaraz aritzea. Gutxieneko baldintza da euskaraz komunikatzeko oinarritzko maila izatea (B1 maila gutxi gorabehera). Informazio gehiago nahi izatera edo izena emateko, deitu edo bidali whatsapp 662 132 558, edo Andoaingo AEK euskaltegira hurbildu. Anima zaitetz!.



Andoaingo Mintzalagunak. MINTZALAGUNA



Iñigo Merkaderren lantaldea, desafioan garaile atera eta gero. Bideoak eta argazkia ikusgai aiurri.eus-en. AIURRI

Merkaderrek mendean hartu zuen Lizartza

Iñigo Merkader hernaniarrak eta Mikel Lizartza tolosarrak Xoxokan apustua jokatu zuten, urriaren 12an. Ordu eta erdiko lana zen, korrika 6 kilometro eta segan gainerako denbora guztia. Sei mila euro zeuden jokoan



Iñigo Merkader. AIURRI



Mikel Lizartza. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Pare-pare ibili ziren desafio guztian zehar, eta Merkader hernaniarrak irabazi zuen azkenean, 3.107 kilo belar ebakita; Lizartzak, 25,5 kilo gutxiago ebaki zuen. 2.981,5 kilo belar denera. Herri kirol zale mordoa bildu zen Xoxokan.

xokan, Hernanialdetik eta Tolosaldeetik etorritakoak gehientsuenak. Batzuk eta besteak eta etengabe aritu ziren animoak ematen bi kirolariei. Kirol ikus-kizun polita eskaini zuten guztiek ere, herri kiroltarako zaletasuna sustatzen duten horietakoa.

Asier Niebla gogoan, haren heriotzaren urteurrenean

"Justizia Asierrentzat! Eraso matxista gehiagorik ez!" zioen pankarta Donostiako Bulebarrean zabaldu, eta 2018an gaztea hil zuten Perujuantxo kalera abiatu ziren. Han senitartekoek lore eskaintza egin zuten. Egun batzuk lehenago senideek justizia eskatu zuten: "Hiru urte daramatzagu justizia eske. Justizia Auzitegi Gorenari eskatu nahi diogu berriro sar dezala generoari lotutako arrazoia, izan ere auzitegiak elementu hori baliogabetu zuen Asier emakumea ez dela argudiatuz.





Virginia Gonzalezek negozioa Andoingo Kale Nagusian du. Gurasoek zabalduetako bideari jarraipena eman dio. AIURRI

J.A. Ubeda / F. Irazu ANDOAIN

Dendaren ardura hartu eta Covid-19ak gogor kolpatu zuen gizarte osoa. Nola bizi izan zenuen egoera hura?

Zaila izan da, ziurgabetasuna handia baitzen. Ez zen salmentarik, eta kontutan izan hemen saltzen ditugun produktuak urte bat lehenago erosten ditugula. Beraz, arropa berria dendan bertan nuen. Irtenbide bat bilatu behar zen, eta maskarillak egiteari ekin nion. Zetazko tela politak hartu, eta dendan nuen

"Fideltasun handia erakutsi digute"

VIRGINIA GONZALEZ GONZALEZ SASTRERIA

Pandemia hastearekin batera hartu zuen negozioaren ardura. Zailtasunez beteriko bidean, aurrera doa. Lan asko eginez, baina herrikideen babesarekin hunkituta

josteko makinarekin enkarguzko maskarillak egiteari ekin nion. Osagaiak berehala agortu ziren, eta bilaketa lanari ekin nion denda txikiagoetan. Ahal nuena egin nuen, ordu asko eman nituen zeregin horretan. Dendak zabalteko aukera izan genuenean eguerdiko tarte baliatu nuen lanak aurreratzeko. Eta gaez etxean jarraitzen nuen lanean, goizeko ordu txikiak arte. Oso lo gutxi egin nuen garai hartan, baina beste bezero mota bat dendara hurbiltzeko baliagarria izan da. Itxuraz denda gizonezkoentzat zirudien, eta orain gure eskaintza gazteagoei begira da-goela ikusi ahal izan dute.

Eusteko hilabeteak izan dira, eta ezagutarazteko aukera baliagarria izan da. Nahi gabe ere, uste dut jendeari lanean jarraitzeko gogo bizia nuela erakutsi diodala. Ilusio handia nuela erakutsi dut. Denda aurrera ateratzeko saiakera berezia egiteko prest nengoen.

Zu zara arduraduna, baina zure gurasoek abiatutako bideari jarraipena eman diozu.

1975ean zabaldu zuten negozioa, neu jaio nintzen urtean hain zuzen. 46 urte dira, beraz. Denda txikia zen, eta aitzak gerora handitu egin zuen. Gerora, emakumei zuzendutako negozio berria ireki zuten. Eta Donostian beste denda bat gehiago zabaldu zuten. Orain lan egiten dudana denda da ireki zuten lehena, eta hemen-dik heldu nahi diot negozioari.

Nola gogoratzen dituzu garai haiek? Oso ezberdina zen dena. Merkatalgune gutxiago zegoen, eta ondorioz kompetentzia txikiagoa zen. Internet ez zegoen, noski. Eta oso ezberdina zen dena. Hemen, hogeita bost urte atzera eginez, lau langile ari ziren lanean.



Klik bakarrera, aiurri.eus webgunean
PARTE HARTZEKO BIDEAK:

#Iritzia.
#Postontzia.
#Komunitatea.

www.aiurri.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Ilusioa izatea eta lana gogotik egitea, horiek dira Virginiarentzat aurrera jarraitzeko gako nagusiak. AIURRI

Bezeroak orain askoz gehiago erreparatzen dio erosi behar duenari. Erabaki aurretik ikusteko eta aztertzeko aukera ugari ditu. Arropa denda da, gizonez-koei begira, baina oso fidela den bezeroa dut. Eskaintzen dugun zerbitzuagatik hurbiltzen dira hona, zalantzarik gabe. Bezeroa hemendik pozik ateratzen da.

Zertan aldatu da negozioa?

Egunean egoten ahalegindu gara beti, ardura nagusia aitak zue-netik. Ildo horri eusten diogu orain. Sport moduko arropan espezializatu gara.

Pandemia tarteko, sare sozialei begira jauzia eman duzu.

Komunikatzeko modu ona dela ikusi nuen, eta bestalde animoak emateko aukera baliatu nuen. Bereziki, pandemiaren hasiera-ko asteetan. Gertutasuna adierazten saiatu ginen, bertan jarraituko genuela jakin zezaten.

Zer nolako egoeran dago orain tokiko merkataritza?

Zaila da egoera. Konpetentzia handia dago, eta bestetik merkatalgune handiak daude. Erosleak azterlan handiagoa egiten du orain. Uste dugu hobe dela arropa on bat erostea eta ez kalitate txarreko hoge. Kontzientzia hori galtzen ari dela iruditzen zait. Erabili eta bota, erabili eta bota..., gure industria kutsakorrera bilakatzen ari da. Planetari kalte egiten diogu jokabide horrekin, eta uste dugu hobea dela arropa gutxiago erostea, eta erosten dena kalitatezkoa izatea.

"NIRETZAT GARRANTZIA HANDIKOA IZAN DA HERRIKIDEEK ESKAINI DIDATEN BABESA"

Eremu handiko guneak geroz eta gehiago dira, eta geroz eta gertuago daude.

Eta hori oso kaltegarria da tokiko merkataritzarentzat. Arreta pertsonalizatuan dugu bereizteko aukera. Orokorrean hedadura handiko merkatalguneetan ez dute bezeroa behar bezala aholkatzen. Denda txikietan arazoei konponbidea ematen diogu, merkatalgune handietan ez. Bezero bat hemendik bi egunetara konpromiso handi bat izanez gero, hemendik bikain jantzita aterako da. Dendan josten geratu behar badut, bezeroa bikain egon dadin ahaleginduko naiz. Nire bezeroak hori badaki.

Internet da bigarren mehatxu handiena?

Nire kasu zehatzean ez. Nik eskaintzen ditudan markak internet sarean daude, baina produktu berdina prezio berean eskaintzen du.

tzen du. Ondorioz, bezeroak nahiago du hona etortzea eta hemen erostea.

Gabonen ataria ez da negozioentzat sasoi txarra izaten.

Urteko sasoi onena izaten da. Gizonezkoak ohikoan beharrezkoa denean bakarrik erosi ohi du. Pandemia garaia arazo bilakatu da, alde horretatik. Gehiengoak ez duelako erosteko premia berezirik sentitu. Zute-netik tira egin dute. Gabonetan opari onak egiten dira, eta iazkoa oso garai ona izan zen. Oso eskertuta gaude Andoaingo bezeroekin. Fideltasun handia erakutsi digute.

Eta urtarrila-otsaila garai zaila da.

Beherapen garaia da, eta ez dira hilabete errazak. Baina dendan jarraitzen dugu, udaberrirako prest.

Tokiko merkataritzan etorkizunik ba al dago gazteentzat?

Etorkizuna izango du kalitatezko zerbitzua eskaintzen bada, eta bezeroarekin egiazko harremana lortzen bada. Bezeroa ondo zaindu behar da. Adibide bat jarrita, bezero batzuk telefonoz egiten didate eskaera. Euren neurriak badituzalako, eta eskatu didatena etxeraino ematen diedalako. Tokiko merkataritzaren balio erantsia horrelako zerbitzuetan erakutsi behar da. Badago tokiko merkatariaiek eskaintzen dion denbora eta konfiantza behar beharrezko duena. Horri eutsi behar diogu.

Bestalde, pentsatzen jarrita, kaleak hutsik geratuko lirake. Eta merkatarioek kaleari, herriari halako poztasuna ematen diogula iruditzen zait niri. Oraindik gazte garen merkatarioek etorkizuna kezkatu bizi dugu, ez baitakigu zehazki zer gertatuko den. Zuen negozioan aldaketa handia egin duzue.

Ezkontzei eta antzeko ospakizunei begira lan asko egin izan da hemen, eta orain sport moduko arropa gailentzen ari da. Arropa funtzionala da gehien saltzen duguna, 14 urtetik gorako gazteengandik hasita.

Negozioa ireki behar duen merkataritza gazteari zer esango zenioke?

Ezberdina izaten ahalegindu dadila. Bezeroa zaindu beharra dago, eta bezeroarekin zintotasunez jokatu. Salmenta bat galtzeak merezi du, bezero horri eutsi nahi badiozu. Garrantzia handikoa da hori. Merkataritza gazteak ez du aurrean bide erraza topatuko baina ilusioari eutsi diezaiola. Aitak pandemia aurretik erretiroa hartu zuen, eta niri egokitu zait aro zail horri aurre egitea. Lan asko egin behar izan dut, ordu asko dendan. Ez nuen etsi eta etxean maskarillak egiteari ekin nion. Kasu horretan Instagram leiho interesgarria bilakatu zen. Hemen egindako maskarillak Madrilan saltzea lortu nuen.

TicketBAI egitasmoaren aurrean zein iritzi duzu?

Bizi dugun garai honetan ez nago sistema ezartzearekin ados. Nirea bezalako negozio batean gehien gehienak txartelarekin ordaintzen du. Beraz, ez dakit zergatik ezartzen didaten sistema zehatz bat, eta sistema hori abian jartzeko tresneria erosi beharra. Ez diot zentzurik aurkitzen, egia esan. Absurdoa dela deritzot, ez da horrelakoak txertatzen hasteko unea.

Zerbait gehiago erantsi nahiko zenuke?

Animoak bidali nahi dizkiet merkatariei, eta gora Andoain! Niretzat garrantzia handikoa izan da herrikideek eskaini didaten babesa. Oso eskertuta nago [emozioak gainezka egiten dio].





Eskualdean aurki daitezkeen txoko ederrez gozatzeko aukera izango da, igande honetan. ROBERTO TRUCHUELO

Buruntzaldeko ibilbideen eguna, igande honetan

MENDIZALETASUNA 2020ko edizioa bertan behera gelditu zen, pandemia dela eta. Osasun-alarma egoera amaituta, eta egoera epidemiologikoak nabarmenki hobera egin duela ikusita, urriaren 17an antolatuko da XIII. edizioa

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Pozik agertu zen Jorge Segura-
do Urnietako alkatea aurkezpen
egunean: “Aukera paregabea da
gure herriko ibilbideak ezagu-
tzeko, baita naturarekin harre-
manetan egoteko ere. Oso inte-
resgarria da proiektua”. Ingu-
rumenaz eta aisiaz gozatu nahi
duen ororentzat zuzendutako
hitzordua da: jarduera fisikoa
egiteko, batetik; eta, bestetik,
eskualdeko landa-ingurune na-
turala ezagutzeko. Hori horrela,
eskualdeko mendiguneetan ibil-

tzeko aukera izango dute herri-
tarrek, baselizetan, baserrietan
zein basoetan barrena.

Herrietan ibilbide-zati bakoi-
tzaren inguruko trazatuak, pro-
filak eta distantziak erakusten
dituzten panelak daude.

**HERRIZ HERRI AURKI
DAITEZKE IBILBIDEEN
PROFILA ETA
DISTANTZIA
PANELETAN JARRITA**

Bideetan, berriz, norabideak
eta distantziak markatzen di-
tuzten geziak eta zutoinak egon-
go dira. Seinale horiek guztiak
udalerrri bakoitzaren identifika-
zio koloreak aintzat hartuz dau-
de ipinita.

**IBILBIDEAN ZEHAR
SEINALEAK UDALERRI
BAKOITZEKO
KOLOREEN ARABERA
IPINI DITUZTE**

Seinaleak eta koloreak, herriz herri

Zehazki esanda, aukeran dauden
ibilbideak ondoko hauek dira:

- **Andoain-Lasarte-Oria.** Buruntza mendia zeharkatuz (edo gailurra eginda). Koloreak, urdina eta urre zaharra; 7,9 km.ko luzera du; oinez egin daiteke soilik eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Andoain-Urnieta.** Koloreak, urdina eta berdea; 4,8 km.ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Andoain-Usurbil.** Andatzatik barrena, ibilbide luzeena da. Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km.ko luzera du; oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Lasarte-Urnieta.** Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km.ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga.** Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9 km.ko luzera du (Santue-
netik barrena Aginagako Mapil ingururaino); oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

Bus-zerbitzua, mendi-irteera egin dutenentzat

Bus zerbitzua ere martxan egongo da parte hartzaileentzat, eguerdiko 12:00etan Aginagako Ezpaldiko Gasolindegian hasita. Azken busa arratsaldeko 14:00etan irtengo da. Honako ibilbide hau egingo du autobusak: Aginaga (Ezpaldiko Gasolindegia), Usurbil (San Ignazio biribilgunea), Lasarte-Oria (Dorretzeko biribilgunea), Andoain (Goikoplaza atzealdea) eta Urnieta (Kiosko geltokia).

Kontrolak eta hamaiketakoa, herriz herri

Buruntzaldeko ibilbideen egunaren zehaztasunak:

- **Eguna:** Urriak 17, igande.
- **Ordutegia:** 8:00 - 14:00.
- **Kontrolak eta anoa:** Herri bakoitzean kontrol postuetan ano-puntuak egongo dira:
 - Urnieta: San Juan plaza.
 - Lasarte-Oria: Elizatze plaza.
 - Andoain: Goikoplaza.
 - Usurbilen: Santueneako bidegurutzea; Agiñako Mapil baserriaren ondoa.



Navi Ruta APPa

Aplikazio horren bidez Buruntzaldeko ibilbideetako informazioa emango du. Besteak beste, kokapena, jarraitu beharrek norabidea, interesguneak... Ibilbide bakoitza aktibatzeke paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu behar dira. Herri bakoitzari dagokion gakoa ipini behar da: Andoain: 125; Lasarte-Oria: 123; Usurbil: 126; Urnieta: 124.



Urnietako
udala



"Mendian hil" taldeko kideak, Mendifilm jaialdian. GOIENA

Maila handiko dokumentalak Saroben, Zanpatuzen eskutik

MENDIZALETASUNA Urriaren 21ean Edurne Pasaban hurbilduko da Urnietara; biharamunean, Iñaki Peña

Erredakzioa URNIETA

Zanpatuz Mendi Elkartek bi emanaldi antolatu ditu Saroben, datorren asterako. Urriaren 21ean Pasabanen "Chhaupadi" dokumentala ikusteko aukera izango da, eta 22an Peñaren txanda izango da "Mendian hil, hirian hil" izenburu duen lanarekin. Bi emanaldiak 19:00tan hasiko dira eta sarrerak dagoeneko Saroben bertan salgai daude.

Nepalen bada Saipal izeneko bailara bat, eta bailarako mutur batean 7.000 metro pasatxoko mendia, izen berekoa. Pasabanek mendi horretara igotzeko espedizioa osatu zuen. Bailara hartako emakumeen egoera larria munduratzea helburu zuen: "Aspaldiko ohitura dago indarrean. Emakumeak hilekoa dutenean etxetik bidaltzen dituzte, txabola narras batzuetara, lizunak edo zikinak direlakoan. Eta egoera lasgarri horri ikusgaitasuna eman nahi genion".

Iñaki Peña Bandres, Arrasateko erietxean lana egiten duen zainketa aringarrietako medikua da. Egunerokoan heriotza gutxi ikusten duen bilbotarra da Iñaki, eta bere ihesbidea, mendia da. 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala baino lehenago dolua ardatz zuten beste bi lan ekoitzi zituen: 'Aulki hutsak', lehena, eta 'Dolua eta indarkeria', bigarrena.

Hirugarrena trilogia baten modukoa dela dio, "mendian kokatutakoa, eta mezu garbiarekin: bakoitzak gure bidea egitea, mendian disfrutatzearen aldekoa, bizitzaren aldekoa. Pandemia garai hauetan ikusi dugu zeinen hauskorrak garen". Doluari buruzkoa da dokumentala, baina hiriarekin ere lotura duena.

Bi emanaldien ostean dokumentalen egileekin solasean aritzeko aukera emango du Zanpatuz mendi elkarteak.



"Chhaupadi" dokumentalaren egilea da Edurne Pasaban mendizalea. CHHAUPADI



Idoia Moreira jokalaria. UKE

Jardunaldi ezin hobea Urnietako taldeentzat

ESKUBALOIA Lautik lau garaipen eskuratu zituzten UKEko taldeek, aurreko asteburuan

Erredakzioa URNIETA

Urnietako eskubaloia taldeentzat jardunaldi bikaina izan da aurreko asteburukoa, lau partidetatik lau irabazita. Urnieta Quel Abogados emakumezkoen taldeak debuta egin zuen ligan Ereintza Beissierren aurka, eta garaipen garrantzitsua eskuratu zuen (19-15). Urnietarrek maila handiagoa erakutsi zuten lehen zatian, baina partidak aurrera egin ahala, aurkaria markagailuari bira ematen hasi zen. Dena den, amaierarte abantailari eusten asmatu zuten UKEkoek.

Urnieta Artola Harategia senior mailako gizonezkoen taldeak ere garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Muzkiz Eskubaloia taldearen aurka (26-20). Ezinbesteko bi puntu lortu zituzten etxean, ligari eusteko lehian jarraitzeko.

Kadeteak maila onean

Kadete mailako mutilek denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten Eibarren aurka (19-26). Hasieratik lan bikaina egin zuten eta aurrelariak baloia sareratzen jakin zuten. Emakumezkoen taldeak ere irabazi egin zuen, Arrasateren aurka (14-10). Denbora luzez lehiatu gabe egon ostean, ez dute ez sasoirik ez eta mailarik galdu.



©MARKEL.BAZAN

Garaipena Kobe Motor proban

MOTORRA Debora Frutos andoaindarrak eta Jokin Urkizuk Paracuellos de Jarama herrian ospatu zen rallyan garaipen garrantzitsua eskuratu zuten, Kopa Kobe Motor lehiaketan garaikurra lortuta. Hurrengo lasterketa urriaren 22 eta 23an izango da, Kordobako Pozoblanco herrian eta, berriro ere, maila ona erakustea espero dute.



©MARKEL.BAZAN

"Beste denboraldi bat zakura"

TXIRRINDULARITZA Italiako eta Frantziako denboraldi amaierako lasterketetan murgilduta ibili da Mikel Iturria urnietarra, guztietan ere maila handiko partaidetzarekin. Paris-Tours lasterketan –irudian–, amaiera eman dio denboraldiari. Urte osoan zehar lehiatzeko aukera izan du, goi mailako txirrindularitzan. Merezitako oporraldiak hartuta, laster iritsiko da 2022a.



andoaINDARRA
euskaraz

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Berriketaldia

"Emakumea eta kirola" berriketaldi feminista. Gonbidatua Ainara Arratibel kirol kazetaria izango da.

18:30, *Bastero*.

ANDOAIN Musika

Kutxi Romero Mareako kantari ezagunaren kontzertua.

19:00, *Bastero*.

ANDOAIN Erakusketa zabalik

"Formal formal" izeneko erakusketa zabalik. Artistak: Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur, Larraitx Torres, Iñigo Gomez, Itziar Gutierrez, Ane Lekuona.

Azken eguna: *Urriak 30*.

ANDOAIN Lehiaketa martxan

2022. urteko Udal egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Oinarriak Andoain.eus webgunean.

Azken eguna: *Urriak 31*.

URNIETA Lehiaketa martxan

2022ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Oinarriak: Urnieta.eus.

Azken eguna: *Azaroak 5*.

OSTIRALA 15

URNIETA Haur irakurtaldia

"Liburutegiko xaguak", 4 urtetik gorakoentzat.

17:00, *Lekaio*.

URNIETA Ipuin kontaketa

Saioa Aizpurua, 3-5 urtekoentzat.

17:00, *Lekaio*.



Ganso & Cia konpainia Urnietara hurbilduko da. KULTURKLIK

URNIETA Babo royal klown kale antzerkia familia osoarentzat

Tronpetak entzun eta banderak astintzen dira. Ospakizuna has dadila! Fisikoki edo sinbolikoki, guztiok gonbidatuta gaude desfile, borroka edota torneoan parte hartzera. Fantasia bihurtu beharko da erregeak nahi duen oro. Babo Royal jolasa da, hierarkiak trukatzaren diren antzezlanak.

Urriak 15, ostirala. 18:00, San Juan plaza.

ANDOAIN Bilera

Euskaraldia 2022 edizioa antolatzen hasteko bilera.

18:30, *Bastero Kulturgunea*.

ANDOAIN Filma

"Dantza" filma, Urkiren eskutik. Telmo Esnal zuzendaria bertan izango da.

19:00, *Bastero*.

LARUNBATA 16

URNIETA Topaketa

Kulturarteko topaketa, gastronomia eta tradizioa uztartuz.

16:30-20:30, *Etxeberri plaza*.

OSTEGUNA 21

URNIETA Dokumentala

"Chhaupadi", Edurne Pasaban.

19:00, *Sarobe*.

OSTIRALA 22

URNIETA Dokumentala

"Mendian hil, hirian hil", Iñaki Peña.

19:00, *Sarobe*.

ANDOAIN Dantza

"Amoria & Dolore", Kresala.

20:30, *Bastero*.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Patrulla Canina**

Larunbata, 16. 17:00.

Igandea, 17. 17:00.

Benedetta

Larunbata, 16. 19:30,

22:00.


Igandea, 17. 19:30.

Astelehena. 18. 19:30, 22:00. Ikuslearen eguna.

Mr Link

Igandea, 17. 12:00.

Euskaraz. Eskaintza berezia: 2,90 euro.



SINOPSIS

**Benedetta**

Zuzendaria: Paul Verhoeven. **Gidoia:** David Birke, Paul Verhoeven (Judith C. Brownen eleberrian oinarrituta). **Aktoreak:** Virginie Efira, Charlotte Rampling, Daphne Patakia, Lambert Wilson... **Herrialdea:** Frantzia (2021). **Generoa:** Drama, thrillerra. **Iraupena:** 131 minutu.

Ezinezkoa dirudien bilaketa

Benedetta Carlini Toscanako Pescia komentura iristen da, eta gaztetatik mirariak egiteko gai dela dio. Komentu bateko sexualitatea eta bertako moja

baten homosexualitatea ditu ardatz filmak. XVII. mendean Italian egokituta dago, Judith C. Brownen eleberri ezagunean oinarrituta.



Zinema, euskaraz

Sir Lionel Frostek mito, munstro eta elezaharren ikertzaile nagusitzat jotzen du bere burua. Ikerketa bat hasiko du katebegi galduaren bila, erdi gizaki, erdi piztia den izaki misterioetsuaren bila.

"Formal formal", artista gazteen erakusketa Basteron

Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur eta Larraitx Torres sortzaileen lanak ikusgai daude, hilaren 30era arte

Erredakzioa ANDOAIN

Erakusketak ikusleak sorkuntzaren partaide bilakatu nahi ditu, eta xede horri eutsiz, herriko talde ezberdinekin eta ikasleekin jarduerak antolatzen ari dira.

Antolatzaileen esanetan erakusketak "bere baitan hartzen ditu lan plastikoak, soinuak, testuak eta performance-a, espresio-bide ezberdinen arteko loturak eta elkarriketak azalarazteko xedez. Lehenik hitzeta-

tik jota, hortik soinu eta abes-tietara eta azkenik objektuetara iritsiz, plazaratzen diren galdera irekiak honakoak dira: Abesti bat al da erakusten dena? Zer inplikazio dakartza mezuari zuzenean erantzuteak? Izendatzen den unetik bertatik hasten al da zerbait existitzen?"

Arte-garaikidea gizarteratzeko gogo horri laguntzeko, Iñigo Gomezek, Itziar Gutierrezek eta Ane Lekuonak landutako testuak irakurgarri jarri dituzte Basteroko erakusketa-aretoan.



Gutierrez, Laspiur, Castro zinegotzia, Torres, Alonso eta Lekuona. AIURRI



"Aimar" izan da zortzigarren denboraldiko bigarren asteko irabazlea. Etxekoak lagunduta jaso zuen saria, Javi Torres Arrutiko langilearen eskutik. AIURRI

"Aimar" izan da Arrutiko opari gozoaren bigarren irabazlea

Egunean Behin lehiaketako "Aiurri" taldean egunero-egunero ehunka lagun parte hartzen ari dira

Erredakzioa ANDOAIN

Urriaren 4tik 10era bitarteko partida guztiak jokatu zituzten partaideen artean zozketa egin eta gero, Egunean Behin lehiaketa ezaguneko sariaren irabazlea "Aimar" izan da. Egunero-egunero ehunka lagun parte hartzen ari dira "Aiurri" taldean, eta zortzigarren denboraldi ho-

netako saria Arruti gozotegiko kutxa gozoa izango da. Astelehen goizean jaso zuen saria "Aimar" jokalaria. Dagoeneko bi aste igaro dira, eta abenduaren 12ra bitarte astero zozketa bana antolatuko du Aiurrik, Arruti gozotegiaren babesarekin. Oraindik saria jaso ez dutenei, ekin eta jolas! Zorte on.



Astero-astero Arrutiren opari gozoa zozkatuko da "Aiurri"ko taldekideen artean. AIURRI



"Ezkide" izan da zortzigarren denboraldiko lehen asteko irabazlea. AIURRI



Amaia Lezama zuzenduko du aniztasunaren aldeko proiektua, "Aniztasunetik eraikiz" programarekin elkarlanean. AIURRI

Aniztasunaren aldeko konpromisoa

Estereotipoak gainditu eta gorroto mezuen aurkako jarrera sustatu asmoz, programa martxan jarri dute

Aiurri komunitatea

Egape ikastola

URNIETA

Gazteen artean "aniztasunaren aldeko konpromisoa" indartzea helburuarekin, 'Aniztasunetik Eraikiz' programa abiaraziko du ikasturte honetan Gipuzkoako Aldundiak. Ikasleek beren inguruan bizi duten aniztasuna ezagutu eta baloratu dezaten bide berri bat ireki nahi du egitasmo honek: diskriminazioaren eta gorroto mezuen aurkako jarrerak sustatzeko, nahiz giza eskubideekin lerrokatutako gogotak sorrarazteko.

Programa horrek gure ikastetxeko ildo estrategikoekin bat egiten duela ikusirik, bertan parte hartzea erabaki dugu beste sei ikastetxerekin batera.

Egitasmoak hiru urteko lan-keta eskatzen du. DBHko bigarren mailatik hasita, urte bakoitzean lan ildo bat jorratuko da, mi-

gratzaileen, dibertsitate funtzionala duten herritarren eta LGT-BIQ+ pertsonen eta gutxiengo etnikoen errealitatearen berri emanaz gazteei. Hainbat gaitasun garatzeko ariketak proposatuko dira, hala nola, aniztasuna eta enpatia lehen urtean, giza eskubideak eta partaidetza bigarren urtean eta gorroto mezuak eta sormena hirugarren urtean.

Hiru atal bereiziko dira: aztertu, sentitu eta konprometitu. Gaiaren gaineko hausnarketa egiteaz gain, pertsona eta elkarrekin ezberdinak gelara ekarriko ditugu. Hori ere, beren esperientziatik eta bizipenetatik abiatuta, ikasleekin solas egingo dute, beren errealitate aniztatik sentitzen dutena eta bizi izan dutena ikasleei azalduko diete. Bukatzeko, ikasleek ekimen bat aurrera eramango dute herriari zerbitzu bat eskainiko diote, eta baita ikasketa zerbitzua garatu.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta etxekoak. Oso erraza da, eta dohainik!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsesezko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingeles irakasle diplomatu behar da klaseak emateko. **English First Certificate** azterketa prestatzeko. **693 692 823**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza

laguntza **edo mintza-lagun** bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

MERKATU TXIKIAN PARTE HARTZEKO

Emaillez: diseinua@aiurri.eus
Whatsappez: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behea. Andoain**

TELEFONO-ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

Martin Ugalde hizpide

Kazetari eta idazle andoaindarra gogoratzeko ekitaldi-sorta antolatu da. Besteak beste, idazlearen izena daraman kultur perkean. Datorren urriaren 14an Nerea Azurmendi kazetariak hitzaldia emango du "Martin Ugalde, historia egin duen kazetaria" izenburupean. Iluntzeko 19:00tan hasiko da, eta hitzaldia youtube bidez jarraitzeko aukera eskainiko dute.





Maidier Callejon, Ainhoa Mujika, Eñaut Egaña, Andoni Alonso, Leire Etxeberria eta Koldo Antolinez dantzari andoaindarrak Dantza filman ageri dira, Leitza. **AIURRI**

Urki dantza-taldeak antolatuta, "Dantza" filma ikusgai Basteron

Ostiral honetan 19:00tan hasiko da emankizun berezia, Telmo Esnal zuzendariaren parte hartzearekin


Erredakzioa ANDOAIN

Badira arrastoa uzten duten filmak, eta euskal zinemagintzan horietako bat da "Dantza" izenakoa. Telmo Esnal zuzendariaren aspaldiko nahia zen dantzari lotutako filma egitea, eta egitasmo horretarako Koldobika Jaurregi artista eta Juan Antonio Urbeltz adituaren laguntza izan

zuen. Horrez gain, Euskal Herri osoko dantzariak parte hartu zuten egitasmoan. Tartean, Urki dantza taldeko kideak. Bizitzaren zikloa irudikatzen duen filma osatu du, dantza ezberdinak sinbolo gisa hartu da. 2018ko Zinemaldian izan zen estreinaldia, eta, geroztik, arrasto sakona utzi du dantzazaleen artean.



Telmo Esnal zinema zuzendaria Basteron izango da, ostiral honetan. **AIURRI**



Ahobizi eta Belarriprest. **EUSKARALDIA**

Euskaraldia 2022 antolatzen hasteko bilera

Ostiral honetarako deitu dute lehen bilera Bastero Kulturgunen, 18:30ean hasita

Erredakzioa URNIETA

Herritarrek lehen bilerara hurbiltzeko deialdia egin dute antolatzaileek: "Euskaraldiarekin oihartzun handia lortzen duen arren, edizio batetik bestera hutsean gera ez dadin, bestelako lanak ere egin behar dira. Horregatik urriaren 15ean arratsaldeko 18:30ean Bastero Kulturgunean izango dugun bilera bertaratzea eskatzen dizugu". Lan-taldea osatzea da helburua.



Hennarekin tatuajeak egiteko aukera egongo da, larunbat honetan. 2019ko edizioan ere bertan izan ziren. **AIURRI**

"Kulturarteko topaketak" Urnietan, larunbat honetan

Etxeberri plazan izango da 16:30etik 20:30era. Gastronomiaz eta tradizioaz gozatzeko aukera izango da

Erredakzioa URNIETA

Etxeberri auzo elkartearen eskutik, 2019an Urnietan ospatu zen hitzordua biziberrituko dute. Orduko hartan bezala, jatorri ezberdinetako urnietarren bilkura izatea nahi dute. Bereziiki interesgarria da mundu zabaleko kultura eta gastronomia gogoko dutenentzat. Oihala afrika-

rrekin koadernoak apaintzeko tailerra, henna erabiliz Indiako kutsuko tatuajeak egiteko aukera, afrikar estiloko trentzak... aukera zabala izango da Etxeberri plazan. Txalaparta, bossa nova eta marokiar musika entzuteko aukera iragarri dute. Kultura ezberdinen eguna izango da larunbatekoa.



Tea eta musika Maroko aldeko lagunek eskainiko dute. **AIURRI**



- **Ehunka lagun jokoan, denboraldi berrian.**
- **Adi "Aiurri" taldeari! Astero sari gozoa Arrutiren eskutik.**





Aiurri.eus | Albiste-sorta zabala



Gizartea



Egunean Behin lehiaketa



Agenda



Kultura




Bideoak



Hemeroteka



Argazki-bildumak



Ekonomia



Tradizioa



Jokin Perona Foru Aldundiko arduraduna, TicketBAIri bideratutako bulegoetako batean. IREKIA

TicketBAI, zalantzak argitzeko arreta zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza saila sistema berriari buruzko arreta presentziala eskaintzen hasi da. Besteak beste, Donostian Errotaburuko eta Okendoko bulegoetan eta Tolosako bulegoan

Erredakzioa ANDOAIN

"Zerbitzu berri honen helburua informazioa zuzenean ematea da, eta zergadunak izan dezakeen edozein zalantza edo kezka argitzeko", adierazi du Foru Aldundiko arduradun Jokin Peronak. "TicketBAI esku artean dugun erroka garrantzitsuenetako bat da, eta Ogasunetik laguntzeko gaude, lagundu egin nahi dugu". Halaber, TicketBAIko borondatezko epean sartzeko deia egin die zergadunei. "Sistemak nola funtzionatzen duen jakiteko eta harekin ohitzeko modurik eraginkorrena da, probak egiteko eta beldurrik gabe praktikatzeko". TicketBAIko inbertsioak finantzatzeko laguntzak eskainiko ditu Aldundiak: egindako inbertsioaren %60ko kenkari fiskal moduan, eta 1.000 euroko laguntza zuzena merkataritza eta ostalarientzat.

Hitzordua profesionalentzat

Zerbitzua erabiltzeko, ezinbestekoa da aurrez hitzordua hartzea. Horretarako, 943 113 000 telefonora deitu behar da, edota Foru Ogasunaren webgunearen bidez bestela. Hitzorduak aste-

lehenetik ostiralera hartu daitezke, 08:00etatik 14:30era, eta zalantzak argitzeko 30 minutuko tarte izango du. 15 teknikari kontratatuta dira arreta zerbitzua eskaintzeko, eta arreta zerbitzua Errotaburu eta Okendo (Donostia) edota Tolosako bulegoetan eskainiko dute.

Zerga-betebehar berria

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadun guztiei eragiten die, 55.000 inguru Gipuzkoan. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean garatutako proiektua da. Gipuzkoan proiektua borondatezko epean dago, eta 2022an zehar derrigorrezkoa izango da: urtarrilaren 1ean, zerga-kudeaketako profesionalentzat; martxoaren 1ean, jarduera profesionalean aritzen direnentzat; maiatzaren 1ean, merkataritza eta ostalaritza; urriaren 1ean, eraikuntza, higiezinaren sustapena, garraioa eta aisialdiko edota kulturako zerbitzuak; eta abenduaren 1ean, fabrikazioa, handizkako merkataritza, telekomunikazioak, finantza, artistak eta gainerakoak.

25 urte
pertsonek arteko
zubiak eraikitzen



BILBOAN, DONOSTIAN, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskodi.eus/familiabitartekaritza

